

ANTZERKI-LANA

LAU DILEMA

Xabier Mendiguren Elizegi

DIDASKALIA

Lau solasaldik osatzen dute antzerki-lan hau, eta lau jokalaria dira guztira: bi gizona eta bi emakumezko, elkarriketa bakoitzean bina solas-lagun, hainbat modutan elkartuta.

Aktoreen solasak besterik ez da adierazi testuan: ez jokalekua, adina, jantziak, itxura, argiak, musika, pausaldiak, keinuak, mugimenduak... Horiei guztiei buruzko ideiak eta iritziak badiu egileak, baina nahiago izan du bere kabuz irudikatze askatasuna (eta lana) eman antzezle nahiz irakurleei.

I

A GIZONEZKOA, E EMAKUMEZKOA

A: Kaferik?

E: Bai, mesedez.

A: Nik ere hartuko dut pixka bat.

E: Normalean ez duzu hartzen eta.

A: Baina gaur bai.

E: Eta gero lotarako?

A: Ez dago presarik.

E: Plan bereziren bat ala?

A: Nork daki.

(...)

A: Esne pixka batekin, ezta?

E: Bai, eskerrik asko.

A: Eta azukrerik gabe, noski.

E: Noski.

A: Nik, berriz, bi koilarakada.

E: Gozopoto!

A: Garratzmendi!

(...)

A: Badakizu? Dilema bat asmatzen aritu naiz gaur.

E: Dilema bat?

A: Bai, badakizu: zer egingo zenuke halako egoeratan.

E: Ta?

A: Ez, ez da egoera erreal bat. Balizko mundu bat asmatzea da.

E: Balizko olak...

A: ... burdinarik ez. Borgesen ipuin haietan bezala edo.

E: Ze ipuin?

A: Gizarte utopikoak planteatzen zituen. Adibidez, testu batean azaltzen zuen bazela herri bat, jan bakarka eta ezkutuan egiten zuena, eta gorputza libratzea, berriz, denak batera eta jendaurrean.

E: Aukeran nahiago zurekin afaltzen egon.

A: Ez dut uste Borgesek komunekoak bistan egiteko irrikarik zeukanik. Gure ziurtasunak, azken batean, konbentzio hutsa direla erakutsi nahiko zuen.

E: Horrekin entretenitzen bazen...

A: Bueno, entretenimendua baino zeozer gehiago izango zen harena.

E: Ariketa intelektuala...

A: Halako zerbaiz.

E: Eta zurea?

A: Nire zer?

E: Zure dilema.

A: A, hori. Bueno... esan dezagun entretenimendu hutsa dela.

E: Balizko mundu bat asmatzea.

A: Horixe. Imajina ezazu gizarte bat, non batak besteari oheratzeko proposamena egitea normal-normala den.

E: Hemen ere ez da anormala, nahi izanez gero.

A: Ez, normal-normala esan nahi dut. Hemen beti daude atzera-aurrerak, bai baina ez...

E: Ez baina bai...

A: Ez nago seguru... Hori dena. Kontu egizu, ez dagoela hala-korik. Gizarte horretan eskaera garbia da: nahi duzu ala ez duzu? Eta erantzuna ere bai: zirt ala zart.

E: Hori da dilema?

A: Itxoin. Orain dator onena. Zirt ala zart horretan. Neskak baietz esaten badu, orduan oheratu egingo dira, inongo arazorik eta kontzientziako harrik gabe.

E: Eta ezetz esaten badu?

A: Ez da ezetz esate hutsa izango. Neskak ezetz esaten badu, orduan hil egin behar du mutila.

E: Nola hil?

A: Hil. Akabatu. Jolasean ari gara. Mundu bat imajinatzen.

E: Aber aber. Baietz esanez gero...

A: Taka.

E: ... larrutan egin behar duzu. Eta ezetz esaten baduzu...

A: ... gizona hil.

E: Besterik gabe?

A: Bai, bai: hantxe bertan. Eta ez litzateke inongo zigorrik egongo. Ez zigor legalik, ez moralik, ez kontu eskerik.

E: Eta nola hil behar luke: pistola batekin edo...?

A: Hori zehazteko dago. Mordu erraza eta praktikoa izan beharko luke, baina andreak bere eskuz hilko luke gizona.

E: Joder.

A: Horrek pentsatzera garamatza: gizarte horretan, gurean baino promiskuitate gehiago egongo litzateke, ala gutxiago? Sexu gehiago ala gutxiago praktikatuko litzateke?

E: Ba, ez dakit zer esan.

A: Gizonarentzat errazago izango litzateke eskatzea. Sedukzio eta istorioetan hainbeste denbora galdu beharrik ez. Baina ondo pentsatu behar eskatu baino lehen.

E: Bai. Ze, ondorioak...

A: Horixe.

E: Eta zuk proposatutako gizarte horretan...

A: Aizu, nik ez dut ezer proposatu. Imajinatzen ari naiz, jolas batean.

E: Bueno, zuk imajinatutako gizarte horretan, bikote batek behin larrutan eginez gero, gero, hortik aurrerakoetan beti egin beharko lukete, edo...?

A: Ez noski. Aldi bakoitzean eskatu beharko litzateke, eta erantzuna ere aldi bakoitzean libre izango litzateke.

E: Bai: "ámame o mátame".

A: Hori zer da: bolero bat?

E: Halako zerbait.

A: Noski, norbaitek aurretik baietz esan badizu, ustea izan dezakezu hurrengoan ere baietz esango dizula. Konfiantza moduko bat, baina ez erabatekoa.

E: Eta horrek jendea hobeto portatzera behartuko luke, ezta?

A: Horixe. Ze, bestela...

E: ... Kaput. Ez dago gaizki pentsatua zure gizarte hori.

A: Oraindik puntu asko geratzen zaizkit pentsatzeko.

E: Adibidez?

A: Adibidez, ezkontza. Ezkontzarik izan beharko luke gizarte horretan?

E: Ez dakit.

A: Galdera zehatza ez da hori, beste bat baizik: ezkontzaren barruan ere izango litzateke galdera hori: "ámame o máame"?

E: Zuk esango duzu.

A: Printzipio bera ezartzeak baditu bere alde onak. Gizonak ez luke pentsatuko andrea bere jabetza denik.

E: Eta andreak dibortzioa eskatzen lanik ez: lepoa bihurritu eta kito.

A: Horixe. Dena dela, gauzak hola badira, eta ezkontzaren barruan izaten diren tentsioekin, zertarako ezkondu? Ezkontzaren zentzu bakarra, printzipioaren salbuespena izatea litzateke.

E: Hortaz, andreak baietz esan beharko luke beti?

A: Ez noski. Baietz edo ezetz nahieran, gaur egun bezala, baina hiltzeko aukerarik gabe.

E: Ze pena.

A: Beharbada bai, ezta? Dena dela, ezkontzea edo ez ezkontzea, aukera librea izango litzateke.

E: Baina ezkonduak, aukera izango lukete beste batzuekin aritzeko?

- A: Bai noski. Gizonezko nahiz andrazkoek. Eskatzea libre da, mugarik gabe.
- E: Baina hiltzeko arriskuarekin.
- A: Horixe.
- E: Zure dilema horrek badu beste hutsune bat.
- A: Seguru baietz.
- E: Handia gainera.
- A: Esan, esan. Hobetzeko fasean gaude.
- E: Denbora guztian ari zara esaten gizonak andreari eskatuko diola, eta andreak erantzungo duela hau edo bestea, baina emakumezkoari ez diozu uzten inizatibarako aukerarik.
- A: Aiba!
- E: Hala behar duela esan behar al didazu?
- A: Ez, ez, ez, ez.
- E: Hortaz?
- A: Deskuido bat izan da. Oraintxe asmatu dut dilema eta...
- E: Hortaz, konpontzeko asmoa duzu?
- A: Bai, bai, bai, bai.
- E: Eskubide berdintasunaren alde?
- A: Dudarik gabe. Ohituragatik pasako zitzaidan oharkabean. Nola normalean gizonzkoa izaten den beti emakumearen atzetik ibiltzen dena...
- E: Alderantziz ere bai.
- A: Bai, baina estrategia diferenteekin. Aurrez aurre ekiten dio-na, arra izaten da beti.
- E: Eta hola izan behar al du derrigor?
- A: Ni ez naiz hor sartuko. Zer den kulturala, zer naturala...
- E: Zer genetikoa, zer ikasia...
- A: Horixe. Nik nahiago nuke gauzak bestela balira baina... Gaztetxoak ginela ere halaxe izaten zen dantzaldietan.
- E: Dantzaldietan?
- A: Bai: lotuan dantza egiteko eskatzeko orduan. Eskatu, mutilak eskatzen zuen. Eta neskak aukera zeukan baietz edo ezetz erantzuteko. Aginte-posizioa neskarena izaten zen beti.

E: Ez beti.

A: Nola ezetz?

E: Zuk neska politak dauzkazu gogoan, mutilek nola eskatzen zenieten dantzan egiteko, eta nola haiek gustukoena auke-ratzen zuten, eta besteak bazterten. Ez da hala?

A: Halaxe.

E: Baina zer gertatzen da hain politak ez diren neskekin? Be-harbada inortxok ere ez zien dantzan eskatuko, eta alferrik egongo ziren zain, mutil bat noiz hurbilduko.

A: Hori ere egia da.

E: Mutil itsusiak arriskatzeko aukera zeukan behintzat. Ezetz esaten bazioten ere ez zen horren larria: beste batekin egin zezakeen proba.

A: Bai, eta dantzaldian kalabazak jasotzea ez da heriotza-sen-tentzia.

E: Horixe bera.

A: Hortaz, gure formulazioa zehaztuz joango gara: ezkontza salbuetsita geratzen da, baina hortik kanpo, libre da gizo-nak andreari eskatzea, edo andreak gizonari.

E: Edo andreak andreari, gizonak gizonari...

A: Bai noski, ez gara gu debekuekin hasiko.

E: Eta pederastak?

A: Gizarte horretan ez da pederastiarik izango.

E: Zerbait ona badu behintzat.

A: Horren txarra al da ba bestela?

E: Txarra ez baina, berezia.

A: Bestela ez zuen mereziko berriketan jardutea.

E: Nahiko berriketa hutsa hala ere, ezta?

A: Bueno. Ni gustura ari naiz. Gaiak aspertu bazaitu...

E: Ez, ez, ez. Segi, nahi baduzu. Ez dakit gehiagorako ematen duen baina.

A: Funtsean, azaldu dut zertan datzan gizarte utopiko hori.

E: Utopikoa, desiragarriaren zentzuan?

- A: Ez, ez, zentzu teknikoan: utopikoa, inon ez dagoena. Balizko gizartea deituko diogu.
- E: Balizko errota bezala.
- A: Horixe. Azaldu dugu harremanetako protokoloak nola funtzionatzen duen, baina orain pentsatzen hasi behar genuke nola funtzionatuko lukeen harremanen mekanikak.
- E: Zuk jada pentsatua daukazuna.
- A: Zirriborro bat besterik ez. Eta beharbada oker. Zuzenduko didazu, hala baldin bada.
- E: Esan ba.
- A: Kontu egizu mutil batek neska bati eskatzen diola.
- E: Edo neskak mutilari.
- A: Bale. Edo neskak mutilari. Baina, dagoen arriskua kontuan hartuta, neska gutxi ausartuko litzateke pauso hori berak ematera; nahiago izango luke mutilari bidea libre dagoela insinuatu.
- E: Baliteke.
- A: Eman dezagun, hortaz, mutilak neskari eskatzen diola ea berarekin oheratu nahi duen. Seguruenik aurretik egongo zen hartu-emanen bat, hitzen bidezkoa-edo, bestela arrisku handiegia litzateke mutilarentzat.
- E: Baina nola horren ausartak zareten.
- A: Testosteronak erokeriak eginarazten dizkigu, baina tamainan hala ere.
- E: Ez suizidatzeko lain.
- A: Horixe: ez suizidatzeko lain. Hortaz, mutilak ez dio ero-eroan eskatuko, baina ez dauka, ezin du eduki, baiezkoaren segurtasunik.
- E: Horretan datza jokoa, ezta?
- A: Horretan datza jokoa. Andrea, noski, gustatzen zaio gizonari, bestela honek ez zuen halako arriskurik hartuko. Andreari ere gustatzen al zaio mutila? Eman dezagun baietz.
- E: Izan gaitezen baikorrak.
- A: Bestela, akabo mundua. Balizko mundua. Baina gerta liteke andreari gizon hori ez gustatzea. Hau itsu-itsuan joan da,

neska zoragarria besterik ikusten ez duela, eta berari hainbeste gustatzen zaionez, iruditu zaio alde bikoia izan behar duela sentimenduak.

E: Gizonezko askok egiten duten hutsa.

A: Equiliqua. Kasu honetan, zigor gogorra izango duena. Eta gehiago errepikatuko ez dena. Gizon horren partetik behintzat.

E: Baina injustizia galanta egiten duzu.

A: Halakoxeak dira gizarte horretako legeak. Ez dago beraz injustiziarik.

E: Nola ezetz? Bidegabekeria izugarria egiten diezu emakumei.

A: Emakumeei? Nik uste nuen gizonezkoak zirela gehien galtzen zutenak: bizia.

E: Gizonak zakilarekin pentsatzen du, zure gizarte horretan, eta badaki ze arrisku hartzen duen. Baina emakumeari, berak nahi ez duela, hiltzaile bihurtzeko eskatzen diozu.

A: Ezetz esaten badu. Libre du aukera.

E: Bai noski: puta edo hiltzaile bihurtzea. A ze aukera pare.

A: Bueno, berak ere badauka arriskatzea, gizonezkoei proposamena eginez.

E: Ez al zenuen esaten emakume batek sekula ez lukeela arrisku hori hartuko?

A: Pentsatzen jarrita, arriskua ez da horrenbesterako: ze gizonezkoek esango lioke ezetz emakume baten proposamenari?

E: Emakumea ederra bada. Baina itsusia baldin bada?

A: Dantzaldian bezala...

E: Uste dut nahasten ari garela.

A: Bai, pixka bat. Baina hala ere, zuzena da zure intuizioa.

E: Ze intuizio?

A: Emakumeari dilema moral bat zabaltzen zaiola. Mutila asko gustatzen bazaio, aurrera bolie. Nazkagarri bat iruditzen bazaio, arma-tiro-pun. Baina tarteko kasuetan?

E: Era guztietako kasuak izan litezke tartean.

A: Horixe: gustatu bai baina seguru ez egotea; sinpatikoa iruditzea baina fisikoki ez gustatzea; gogoko izatea baina bere bikotekidearekin fideltasuna gorde nahi izatea...

E: Mila kasu.

A: Mila kasu, eta denetan galdera bera; Vladimir Ilitx zaharrak esan zuen bezala: zer egin?

E: Krudelkeria ikaragarria da hori emakumearentzat.

A: Baliteke. Printzipioz, errukiak eraman dezake neska bat baietz esatera. "Nola akabatuko dut gizajo hau, amodio pixka bat besterik ez du nahi eta?". Hori izan liteke emakume normal baten gogoeta. Baina, halako asko etortzen bazaizkio, eta hotsa zabaltzen bada horrek beti baietz esaten duela, azkenerako bihotza gogortuko zaio; pentsatuko du: "Nekatu naiz apote hauentzako urdanga izaten"; eta hurrena etortzen zaion txoriflauta, garbitu egingo du errukirik gabe.

E: Ondo egina, kasu horretan.

A: Orain imajinatu kontrako kasua. Emakume bat, errukirik gabea. Etortzen zaizkion gizonezkoak, bene-benetan gustatzen ez bazaizkio behintzat, pena gutxirekin akabatzen ditu. Horren fama berehala zabalduko da, eta, hortaz, handik pixka batera, inor gutxi ausartuko da hari ezer proposatzea. Orduan, baten bat hurbiltzen bazaio sexu eske, emakumea ohartuko da oso maiteminduta egon behar duela gizonezko horrek, bizia halako arrisku larrian jartzeko prest baldin badago; eta, hortaz, baliteke beste inork eskuratu ez duen altxorra bereganatzea.

E: Ta...

A: Bai?

E: Ez. Ezer ez.

A: Esan, esan.

E: Ez... pentsatzen ari nintzen... Hau dena...

A: Zer?

E: Delako dilema hori... Balizko gizartea... Nondik nora...?

A: Ez dizut ulertzen.

- E: Zerbaitengatik kontatu didazu edo...?
A: Ba... ez dakit. Bururatu egin zait eta.
E: Ariketa intelektual moduan.
A: Gutxi gorabehera.
E: Inplikazio pertsonalik gabe, hortaz?
A: E... zer ba?
E: Badirelako gizonezkoak, gure gizarte honetan, ez balizkoan, emakumezkoekin nola jokatu ez dakitenak.
A: Ba ote?
E: Gauzak garbi adierazteko gauza ez, eta jirabiraka ibiltzen direnak.
A: Emakumeak ez dira ba askoz zuzenagoak izaten.
E: Denetik dago, noski.
A: Bai, denetik dago.
E: Eta batzuek nahi lukete, bere xarmagatik ezin bada, errukiagatik lortu gustuko emakumea.
A: Eta zuk uste duzu posible dela?
E: Zuri zer iruditzen zaizu?
A: Ez dakit ba zer esan.
E: Halako dilema argiak asmatu eta gero ez dakizula zer esan?
A: Adarra jotzen?
E: Ni? Inola ere ez. Horrelako gizonen jokabidea ulertu nahian ari nintzen.
A: A, bai.
E: Bururatzen al zaizu hitzen bat...?
A: Nola?
E: Definizio egoki bat jokaera horretarako?
A: Ba...
E: Esan.
A: ... patetikoa?
E: Bai... patetikoa. Hitz egokia asmatu duzu. Zu bai mutil argia.
A: Bai. Patetikoa.

II

X ETA Y GIZONEZKOAK

- X: Irakurrita al daukazu Kunderaren liburu bat, *Hilezkortasuna* izenekoa?
- Y: *Hilezkortasuna*...
- X: *L'immortalité*, frantsesez.
- Y: Ez, ez dut uste. Ona al da?
- X: Ez naiz ondo gogoratzen. Baietz esango nuke. Badakizu nolakoa den Kunderaren nobelen estiloa: gogoetak tartekatzea kontaktaren harian.
- Y: Nahiko gogoeta manipulatzaileak.
- X: Tira, badakizu: sobietarren pean egondakoak antikomunista sutsu samarrak izan ohi dira.
- Y: Baina honek sakatzen dizkizun gezurrak...
- X: Seguru, baina ez noa horretara. *Hilezkortasuna* nobelarekin ari nintzen.
- Y: Gogoratzen ez duzun horrekin.
- X: Hala da. Baina badago pasarte bat gogoan geratu zitzaidan. Pasadizo xume bat da, edo filosofia-dosi light horietako bat, eleberriarren hasieran. Kontatuko dizut?
- Y: Horretan ari zara, ezta?
- X: Feedback pixka bat behar da eta. Oker ez banago, liburu hasieran pertsonaia bat aurkezten digu, eta esaten digu zinezko hedonista bat dela; bai? Eta ondoren abibide bat ematen digu, hura benetako hedonista zergatik zen argitzeko.

Y: Argitu ba.

X: Dilema bat da. Deitu diezaiokegu, larruaren ala ospearen arteko dilema. Gutako edonori planteatzeko modukoa.

Y: Balio unibertsala duena, beraz?

X: Unibertsala... ez guztiz. Gizonezkoentzat balio du batez ere. Gizonezko heterosexualentzat zehatzago esanda. Eta, distortsiorik ez sortzeko, hobe da ezkondurik ez egotea.

Y: Ez da niretzat orduan...

X: Egiazki inori ez zaigu dilema hau bere horretan aurkeztuko, aukera egiteko. Baina gure burubideei antzemateko balio du, psikearen mekanismoak hobeto ulertzeko; berdin dio nik azaldutako taldean zauden edo ez.

Y: Psikearen mekanismoak... Ederra matraka!

X: Ez beldurtu. Oso kontu ximplea da. Zu hedonista zara, bai edo ez?

Y: Ni? Tamainan.

X: Hori esatea eta ezer ez esatea...

Y: Zer esango dizut ba? Denoi gustatzen zaigu ondo pasatzea.

X: Eta zer zenuke nahiago: ondo pasatzea, ala jendeak ondo pasa duzula uste izatea?

Y: Lehenengoa, noski.

X: Edonork erantzungo luke hori, ezta?

Y: Baietz uste dut nik.

X: Ba, Kunderak ezetz dio.

Y: A bai?

X: Kontatuko dizut haren azalpena?

Y: Aurrera.

X: Zuk imajinatu bi aukera ematen dizkizutela, bat hautatzeko. Bata: munduko emakumerik ederrenarekin oheratuko zara; gau oso bat pasatuko duzu andererik erakargarrienaekin, zure desira guztiak aseztu. Baina inork, inon, inoiz ez du jakingo hitz erdirik ere horretaz. Lagunik handienari ere ezin- go diozu kontatu, ez apaizari aitortzan ez psikologoari kont- sultan. Ezingo duzu zure egunerokoan idatzi, eta komuni- kabideek ere ez dute sekula horren berri izango. Gau

horretakoa gertatu, gertatu da, baina inon ez da geratuko horren azatarnarik txikiena ere. Izan ez balitz bezalaxe izango da. Ulertu duzu?

Y: Orain arte bai behintzat.

X: Hori da lehenengo aukera. Eta orain dator bigarrena. Emakume guztiz eder horrekin, munduko emakumerik desiratuena ospea daukan horrekin, ez duzu gaurik pasatuko larrutan, ez duzu inongo kontakturik izango. Baina, kasualitate txoro batengatik-edo, jende guztiak usteko du elkarrekin pasatu duzuela gaua, jo eta ke. Zuk ez daukazu ezer esan beharrik: esamesen bitartez zabalduko da zurrumurrua, eta laster egia berdaderotzat edukiko dute denek izar eskuraezin hori zurea izan dela. Noranahi zoazela ere, fama horrek lagunduko dizu gainera, betiko. Capici?

Y: No problemo.

X: Gauzak horrela izanda, eta xehetasun guztiak kontuan hartuta, lehengoan segitzen al duzu? Nahiago al zenuke gau bateko plazer iragankor eta aipatu ezinezkoa, bizitza osorako ospearen kilika baino?

Y: Ba, egia esanda, ez dakit zer esan.

X: Kunderak dio, bere nobela horretan, jende gehienak, nahiz eta gozamenaren aldeko aldarria egin, barrura begira eta bene-benetan aukeratuz gero, famaren hautua egingo lukeela. Izan ez zen konkistaren erramu-koroa hori goxoago zaigula, eta luzaroago irauten duela, gure gogoan bakarrik bizi litekeen plazer ahazkor eta lanbrotsu haren oroimena baino.

Y: Horrela begiratuta, badu bere logika.

X: Salbu eta Kunderaren pertsonaia. Hura omen zen berak ezagutzen zuen egiazko hedonista bakarra, kasu horretan andreairekin larrua aukeratuko zuena, ospearen lilura alde batera utzita.

Y: Ez dago gaizki pentsatuta. Eta nobelak, merezi al du?

X: Ez naiz ondo akordatzen, esan dizut lehen ere. Dilema hori etorri zait burura, beste bat asmatzen ari naizelako.

Y: Beste nobela bat?

X: Ez: beste dilema bat.

Y: Emakume kontuekin berriz?

X: Ez, ez: hemen ez dago emakumerik.

Y: Zer egingo diogu ba.

X: Horren ordeztu, artista jendea topatuko duzu. Nahi duzu kontatzea?

Y: Ezetz esanda ere, isilduko al zinateke?

X: Ezta lotuta ere.

Y: Hortaz...

X: Begira. Zuk imajinatu artista bat. Egiatzko artista bat, bere arteaz pentsatzen bizi dena: izan daiteke margolaria, musikaria, idazlea... Ze arlo aukeratuko diogu?

Y: Zeuk esan. Niri berdín zait.

X: Edozein, hortaz. Baina bere ogibidea pasioz bizi duena.

Y: Zer da: artista pobre bat?

X: Seguru asko bai. Baina hori ez da inportantea gure dilemarako. Beste bi faktore axola zaizkigu: talentua, eta izen ona. Edo, gehixeago zehaztuta, artista horren lanaren kalitatea, batetik, eta lan horren oihartzuna, bestetik.

Y: Ez al dira ba batera joaten, kalitatea eta oihartzuna?

X: Ez beti. Batzuen ustez, ia inoiz ez.

Y: Mundua oker eginga hor ere?

X: Halako zerbait. Baina gatozen gure dilemara.

Y: Gatozen ba.

X: Momentu batean uzten badidazu, eskema kartesiar bat marraztuko dizut: x eta y , abzisa eta ordenatuekin.

Y: Kontxo, matematikak! Ez al ginen ari idazle jendeaz?

X: Berez bai, baina gure dilema termino matematikotan azalduko dut. Begira:

Y: Serio jarri zara bat-batean.

X: Horrela itxura zientifikoagoa hartzen du eta.

Y: Dударik ez.

- X: x dira abzisa, horizontalean, eta adierazten dute artista baten talentua: bat, talentu apal samarra; hamar, talentu aparta; eta tartean tartekoak.
- Y: Baina nork erabakitzen du zein den bakoitzaren balioa?
- X: Hori beste kontu bat da, inoiz argitzerik ez dagoena. Artista gehienek joera izaten dute talentu izugarria dutela pentsatzeko, berez daukatena baino handiagoa.
- Y: Bidezkoa da.
- X: Eta badira batzuk, inseguritate handiko jendea, hiperkritikoa, beren talentu bereziaz ohartu ez eta kaxkarragoak direla uste dutenak.
- Y: Hori sinestea gehiago kostatzen zait.
- X: Baliteke zuk arrazoi izatea, baina gure auzirako berdintsu dio. Eman dezagun badagoela norberaren talentuaren neurri objektibo bat: batena izango da bost, beste batena zazpi, harena berriz hiru...
- Y: Dena dela.
- X: Horixe: dena dela. Eta orain y daukagu: ordenatuak, bertikalean. Ordenatuek adieraziko lukete zein den artista horren lanak lortzen duen omena, arrakasta.
- Y: Arrakasta komertziala, ala adituen artekoa?
- X: Berdintsu dio. Eman dezagun batera doazela. Itzal gutxiko artistak bat izango du ordenatuetan; egundoko sona eta eragina dauzkanak hamar...
- Y: Dena dela hor ere.
- X: Horixe. Hortaz, artista bakoitzak posizio bat dauka eskema honetan, bi puntuz osatua. Adibidez, 10-10 izango litzateke aparteko dohainak eta erabateko onarpena izan duen artistaren lekua.
- Y: Picasso adibidez.
- X: Picasso, edo Mozart...
- Y: Edo Shakespeare...
- X: Ulertu duzu, bai. Normalean, posizio hori hil eta gero aitortzen zaie artista batzuei.

- Y: Baina talentua lehendik zegoen hor, objektiboa baldin bada.
- X: Hala da, bai. Bai talentua, bai ospea, biak dira magnitude neurgarriak eta, gure hipotesian, objektiboak.
- Y: Nahiz eta arbitrarioak izan.
- X: Ospea bai. Talentua ez. Bosteko talentua daukaten artista biren posizioa oso diferentea izan liteke: 5-3 batentzat, he-dabideetatik urruti ibiltzen denarentzat, eta 5-8 beste baten-tzat, egun osoan telebistan dabilenarentzat.
- Y: Hori bluff bat izango litzateke.
- X: Bluffez beterik dago Artearen Historia.
- Y: Ados. Baina zein da zure dilema: fama ala talentua, zer den hobe?
- X: Halako zerbaite.
- Y: Igarri dizut.
- X: Baina gauzak konplikatu egingo ditugu zertxobait. Eman dezagun artista baten posizioa, ez oso goian eta ez izugarri behean ere: 4-5, 5-4 edo halako zerbaite.
- Y: Erdipurdiko bat.
- X: Oso gutxik lortzen dute sublimeak izatea.
- Y: Eta jende pila batek jan nahi du dirulaguntzen lapikotik.
- X: Izan gaitezen eskuzabalak: esan dezagun jende askok nahi duela edertasuna sortu.
- Y: Ze polita, horrela esanda.
- X: Eta horrela da, neurri batean. Nahiz eta edertasuna sortu nahi horretan norbere egolatriak ere pisu handia izan.
- Y: Hori ere oso ezaugarri humanoa da.
- X: Bai noski. Dena dela, hasieran esan dugu, artista artista dela: metafora sortu berriaren argitasunarekin, akorde harrigarri baten soinuarekin, enkoadre original baten edertasunarekin liluratzen dena.
- Y: A ze gustuak.
- X: Horrelakoak maite dituelako bihurtzen da bat aritista, ez di-ruaren edo famaren atzetik dabilen aprobe txategia delako.

- Y: Baina horietatik ere izango da.
- X: Zakurrak oinutsik, alde guztietan. Nolanahi ere, eta artista purua dugula kontuan hartuta, zuk zer uste duzu axolako zaiola gehieago: bere lanaren kalitatea, ala bere ospea?
- Y: A ze galderak egiten dituzun. Txikitan galdetzen ziguten bezala, ea nor maite genuen gehiago, aita ala ama.
- X: Ez txiri egin. Zer erantzungo luke artista jator batek?
- Y: Ba, horren jatorra baldin bada, bere lanaren kalitateaz arduratuko da, eta ez bere famaz.
- X: Ados. Baina orain benetako dilema. Imajina dezagun artista horri, 5-5 posizioan dagoen artista bati adibidez, lanpara magiko batetik jeinua ateratzen zaiola, eta dilema hau aurkezten diola: aukeran jartzen dizut zure talentua handitzea, edo zure ospea handitzea; lehenengo bidea hautatzen baduzu, 5etik 8ra igoko dut zure dohaina, askoz hobea izango da zure literatura, edo zure musika, edo zure margolana, baina zu bakarrik ohartuko zara hobekuntza horretaz; gainerakoan, bai gizartearen bai kritikarien bai zure lankideen estimazioa bere horretan geratuko da, 5ean, ez gora eta ez behera egin gabe.
- Y: A ze alukeria, horrenbeste hobetu eta inor ez konturatzea.
- X: Halakoxea da jokoa. Baina ixo, orain dator bigarren partea. Bigarren bidea hautatzen baduzu –esaten dio jeinuak artista-ri-, zure talentua ez da ez handituko ez gutxituko, 5ean geldituko da, baina zure lanari buruz jendeak duen iritzia guztiz hobetuko da, 5etik 8ra: bai publiko orokorrarentzat, bai espezialistentzat.
- Y: 8-5 edo 5-8, hortaz?
- X: Erradikalago ere egin genezake, 9-1 ala 1-9, adibidez, baina dilemak planteatzen duenerako berdintsu izango da.
- Y: Berdintsu... ez dakit ba.
- X: Eman dezagun baietz. Zuk zer uste duzu aukeratuko lukeela gure artistak?
- Y: Artistak ez dakit: nik behintzat 5-8. Talentuan 5 eta faman 8.

- X: Baina benetako artista baldin bazara, zure obraren mailak axola behar dizu, ez famaren kutixiak.
- Y: Bai, baina zertarako duzu obra bikain bat, jendea ez bada bikaintasun horretaz ohartzen?
- X: Oso arrazoi interesgarria.
- Y: Eta gainera, 8ko estimazioarekin, aukera gehiago du lan horrek etorkizunean irauteko.
- X: Nahiz eta merezi ez. Eta beste arrazoi bat ere emango dizut zure jarreraren alde: artistak nortasun hauskorra izan ohi du, batetik bere eskuzabaltasun hori dago, edertasuna sortzera daraman altruismo estetiko hori; horren truke, nolabaiteko estimazioa eskatzen du artista horrek, eta normalean beti iruditzen zaio gutxiegi jasotzen duela, berak ematen duenaren aldean. 8-5 aukera egiten duenak are nabarmenago ikusiko luke desoreka hori, eta bidegabekeria horrek eromenaren atarira eraman lezake.
- Y: Hortaz, garbi dago, ezta?
- X: Ez. Edo bai. Garbi dago zer den jende gehienak bilatzen duena, eta horren barruan sartzen dira artista gehienak ere.
- Y: Hortaz, zer frogatu nahi duzu?
- X: Ez dut ezer frogatu nahi. Baina Kunderaren adibidera itzuli nahi nuke. Gogoratzen hedonistaren dilema?
- Y: Bai, bai: egiazko larru isila, ala gezurrezko fama ozena.
- X: Horixe. Ba, zinezko artista, egiazko hedonista bezalako norbait izango litzateke: nahiago duena edertasunaren amodio sekretua, txutxu-mutxuetako ospe sasikoa baino.
- Y: Eta zu?
- X: Ni zer?
- Y: Ea zein taldetan sartzen zaren zu: ezkutuko txortalarietan, ala kokteletako itxuratieta? Abzisa ala ordenatuak?
- X: Ni... ni ez naiz dilema-asmatzaile txiki bat baino.
- Y: Bueno, bueno. Alde hemendik apaltasun faltsu horiekin, alde hemendik...!

III

M ETA N EMAKUMEZKOAK

M: Zu ere hemen?

N: Bai ba. Hementxe.

M: Nork esango zidan.

N: Ikusten duzu ba.

M: Ez nuen usteko.

N: Zer ba?

M: Ez dakit ba. Zu, horren itxura onekoa izanda.

N: Eskerrik asko. Zu ere ez zaude txarto.

M: Mesedez! Ez konparatu.

N: Bakoitzak ahal duena egiten du.

M: Noski. Baina batzuek oso gutxi ahal dute, eta beste batzuek asko.

N: Filosofiko jarri al zara? Uste dut galdu egin naizela.

M: Berdin dio. Eta aspalditik etortzen zara?

N: Egia esan, oraintxe hasi naiz. Eta zu?

M: Hasi eta utzi, hasi eta utzi, horrela nabil beti.

N: Gogorra egiten al da?

M: Gogorra ez baina, diziplina pixka bat behar izaten da jarraitzeko.

N: Ea ba nik ere diziplina hori dudan.

M: Zuk, neska, beharrik ez daukazu-eta, gorputz horrekin.

N: Gorputza ere hondatu egiten da.

M: Oraindik ordea...

N: Pixkanaka baina etengabe. Dagoeneko ez naiz hamasei urteko gaztea.

M: Nahiko lukete hamasei urteko askok...

N: Bueno, bueno. Utz dezagun kontu hori. Gorputzaren edertasuna, gainera, lehentxeago edo geroxeago hondatu egiten da.

M: Nor jarri da orain filosofiko?

N: Barkatu.

M: Berdin dio. Dena hondatzen da mundu honetan, ez bakarrik edertasuna.

N: Baina edertasunari halako gurtza bat diogu, eta azken batean ez da itxura besterik.

M: Mesedez, ez halakorik esan. Nork eta zuk!

N: Zer esan dut ba? Ez al da egia?

M: Ez da egia. Topiko bat da.

N: Topikoa da edertasuna itxura besterik ez dela esatea?

M: Eta zer da itxura? Ikusten duguna. I-kus-ten-du-gu-na. Beraz dena. Orain zuk esango didazu inortanteagoa dela barrukoa, ikusten ez duguna. Ez da hala?

N: Bueno, bueno. Ez naiz etorri borrokarako.

M: Ni ere ez. Sentitzen dut.

N: Ez dio inporta. Niri ere axola zait edertasuna, ez naiz hori ukatzeko bezain hipokrita. Bakarrik esan nahi nuen, nire ustez, neurritz gain baloratzen dugula; azken batean ondatsun galkorra da. Askoz gehiago irauten du argitasunak.

M: Barkatu, baina hori beste topiko bat da, edertasuna argitasuna baino inportanteagoa dela esatea.

N: Hala da eta.

M: Bai noski, biak dituenak esan behar hori.

N: Eskerrik asko loreagatik, baina uste dut itsututa zaudela edertasunaren zera horrekin. Dena dela, nahikoa luzatu gara kontu honekin, merezi duena baino gehiago.

M: Uzten badidazu, beste pixka batean jardun nahi nuke honetaz. Nik uste arrazoia dudala, eta azaltzen uzten badidazu zu ere konbentzituko zaitudala.

N: Egoskorra zara gero, e?

M: Apur bat bakarrik.

N: Hemen nagoenez... nahi duzun bezala.

M: Dilema bat bezala planteatuko dizut.

N: Dilema bat?

M: Dilema bat, bai: bi aukera, horietako bat hartzeko.

N: Eta nik egin behar dut aukera?

M: Adibidez. Ez da zure kasua baina.

N: Zein da ba nire kasua?

M: Ez izan presarik. Lehentxeago komentatzen aritu zaren horri buruzkoa da auzia: ea zer den hobe, argitasuna ala edertasuna.

N: Nik argi daukat: hobe azkarra izatea.

M: Hoberena biak izatea, ezta? Azkarra eta polita.

N: Aukeran bai, noski.

M: Hor inork ez luke izango zalantzarik. Baina orain asma dezagun benetako dilema bat, pentsatzea merezi duen alternatiba bat. Esate baterako: eman dezagun, pertsonaren edertasuna 0tik 10era neurtu daitekeela: 0 izango litzateke pertsona zeharo zatar eta itsusia, eta 10, berriz, guztiz eder eta txundigarria. Bai?

N: Bai, bai.

M: Orain egin dezagun beste horrenbeste azkartasunarekin. 0tik 10era, 0 izango litzateke guztiz motz eta inozoa, eta 10, berriz, imajina litekeen pertsonarik argiena. Argi dago, ezta?

N: Guztiz argi.

M: Orain eman dezagun jaiotzetik ematen zaigula hainbat puntu. Errealitatean ere horrela izaten da gehienetan: norberak lantzen duena lantzen duela ere, jaiotzetik izaten ditu halako eta halako dohainak, halako eta halako akatsak.

N: Hori oso eztabaidagarria da. Faktore kulturalak daude, sozio-ekonomikoak...

M: Nahi duzuna. Baina, esaerak zioen bezala, berez behar Bilibonakoa.

N: Esaera zaharrak gustu guztietakoak daude.

M: Bueno, orain ez gara horretaz eztabaidan hasiko. Dilema-
ren azalpenarekin ari nintzen. Jaiotzez daukagu puntu ko-
puru bat bi ezaugarri horietan: edertasuna...

N: ... eta argitasuna.

M: Horixe. Denok nahi genuke ahalik eta puntu pilarik altuena
eduki, noski, hogeitik gertu edo. Baina bakoitzak tokatzen
zaionarekin konformatu behar izaten du.

N: Eta ahal dela hobetu, bestela ez ginateke hemen egongo.

M: Hori aparte utziko dugu. Dilema azaltzeko ordua da orain.
Imajina dezagun jaiotzean puntu kopuru jakin bat ematen
zaigula, ez dakit ba nik, hamabi. Batez bestekotik goraxea-
go.

N: Pixka bat bada ere.

M: Horixe. Hamabi puntu dauzkagu, eta guk nahi bezala bana-
tzeko aukera ematen zaigu, bi dohain horien artean.

N: Baina hori noiz: orain ala jaiotzeko momentuan?

M: Jaiotzeko momentuan.

N: Baina orduan ez dakigu ezer bizitzaz.

M: Gure jokoan bai: bizitza berri bat izango litzateke, berrara-
gituko bagina bezala; orain dakigun guztia dakigu, aukera
hori egiteko momentuan behintzat, baina gero hutsetik ha-
siko litzateke gure bizitza, hartutako puntuekin betiere.
Ulertu duzu?

N: Bai noski.

M: Eta zer aukeratuko zenuke.

N: Uf! Ez dakit.

M: Horrek ez du balio. Esan egin behar duzu. Nahi duzun
konbinazioa egin, baina batuketak hamabi izan behar du.

N: Ba... Ez da erraza, e?

M: Jakina. Horregatik da interesgarria. Baina jokoak segitu be-
harra dago. Ea, esan.

N: Ba... Adibidez, zazpi eta bost.

M: Zer zazpi eta zer bost?

- N: Azkartasunean zazpi eta edertasunean bost, noski.
 M: Zergatik noski?
 N: Halaxe iruditzen zaidalako. Eta hamahiru puntu balira, zortzi eta bost esango nuke. Argitasuna aurretik, beti.
 M: Baina edertasunari bost ematen dizkiozu gutxienez...
 N: Guztiz zatarra izatea ere ez da gozoa bizitzan.
 M: Hori behintzat onartzen duzu...
 N: Ez naiz zuk diozun bezain itsua.
 M: Halere.
 N: Eta zuk, nola banatuko zenituzke zure hamabi puntuak?
 M: Ba, zuk ez bezala.
 N: Imajinatzen nuen.
 M: Zergatik diozu hori?
 N: Beti kontra egitea gustatzen zaizu eta.
 M: Kontra egitea ez: neure kasa pentsatzea gustatzen zait.
 N: Aizu, zer esan nahi duzu: besteok ez dakigula geure kabuz pentsatzen? Norbaitek agindutakoa errepikatzen dugula?
 M: Barkatu, ez nuen hori esan nahi. Azkar eta zakar esan ditut gauzak.
 N: Azkarregi eta zakarregi.
 M: Arrazoa duzu horretan.
 N: Hamabi puntuak nola banatu ari ginen erabakitzen. Nik zazpi eta bost, azkartasunaren alde, eta zuk berriz...
 M: Ba nik zazpi eta bost, edertasunaren alde. Eta beharbada zortzi eta lau ere bai.
 N: Nola esan dezake halakorik zu bezalako pertsona argi batek?
 M: Nola ukatu dezake halakorik zu bezalako pertsona eder batek?
 N: Ez hasi gauzak nahasten. Zu azkarra zara, ikasia. Zure dohain horiek aintzat izango dituzu, ezta?
 M: Dudarik gabe.
 N: Eta ergelago izatea gustatuko litzaizuke, ederxeago bihurtzearen truke?

M: Horrela esanda gogorra ematen du, baina bai.

N: Ez dizut sinesten.

M: Utziko didazu azaltzen?

N: Utziko dizut, baina kostatuko zaizu.

M: Egia da argitasun handi samarra daukanak ez lukeela inola ere gutxiago eduki nahi. Batetik hamarrera zenbat emango zenizkidake?

N: Nola?

M: Zenbateko azkartasuna dudala esango zenuke, batetik hamarrera?

N: Zuk? Bederatzi.

M: Eskerrik asko. Nik uste zortzi inguruan ibiliko naizela, baina oso aintzat daukat neure burua, ez dizut ukatuko, eta galerarik tristeena irudituko litzaidake ergelago bihurtzea.

N: Hortaz? Kontrakoa esan duzu lehentxeago.

M: Ez da hala. Zortziko nire azkartasunetik begiratuta, tragedia bat iruditzen zait laura jaistea; baina, lau banitu, lau dituenaren ikuspegitik ikusiko nituzke gauzak, ez orain ikusten ditudan bezala.

N: Hori ere egia da baina...

M: Har ezazu pertsona bat, ez bereziki azkarra: nola ikusten du berak inteligentzia? Xelebrekeria bat irudituko zaio, eskolan nota onak lortzen dituztenen gaitasun bitxi bat, beharbada lanpostu on bat lortzen lagunduko diena, baina hortik kanpo egiazko bizitzarekin zerikusirik ez duena, eguneroko bizimodurako beste inongo ondorio praktikorik gabea. Ez al da hala?

N: Baliteke, baina gauzak errazagoak dira bizitzan buruz bizkorra baldin bazara.

M: Ziur zaude?

N: Egongo ez naiz ba. Ogibide on bat lortzeko, edozertarako.

M: Ederra izateak ere laguntzen du.

N: Ez zait iruditzen.

M: Ezetz? Hartu bi pertsona, inteligentzia-maila berekoak: hiru eta hiru, sei eta sei, nahi duzuna. Ederrean, ordea, bata

gehiago izango da bestea baino. Nork uste duzu izango duela aukera gehien enpresa batean sartzeko: politikak ala itsusiak?

N: Ba, atsegina izanez gero...

M: Ez, ez, ez: gauzak nahasten ari zara: ez gara atsegintasuna neurtzen ari, edertasuna baizik. Dendari bat hartzeko, salmenta-buru bat aukeratzeko, ordezkari bat izendatzeko, polita izateak balio du ala ez du?

N: Bueno, kasu horietan bai, jendaurrean aritu behar dutenez gero, baina beste postu askotan...

M: Bai, noski, lurperatzailea izateko ez du askorik axola.

N: Aizu, zu ari zara orain gauzak nahasten.

M: Nahasten ez: bere tokian jartzen. Lanpostu bat lortzeko azkartasunak bakarrik laguntzen duela esan duzu, eta nik frogatu dizut ezetz, edertasunak ere laguntzen duela. Bietatik zeinek gehiago? Eztabaida luzea izango litzateke eta ez naiz hor sartuko, baina nik esango nuke gero eta balio handiagoa ematen zaiola itxura onari, arlo gehien-gehienetan.

N: Baina itxura on horretan ez da edertasuna bakarrik neurtzen: baita ere txukuntasuna, jarrera egokia...

M: Eta itsusia txukunagoa al da berez ederra baino?

N: Ez baina...

M: Utz dezagun lanpostuena. Eta giza harremanetan? Lagunak egiteko, bikotekide on bat lortzeko, edonora sartu eta ongi hartua izateko, zer da gehien axola duena?

N: Lehenengo momentuan itxura, baina gero...

M: Baina gero, bego. Zuk esango didazu norbait oso itsusia baina oso jatorra baldin bada, ez zaiola lagunik faltako. Beharbada ez. Baina asko kostatuko zaio bikotekide bat lortzea, eta askoz gehiago bikotetik kanpoko harremanak izatea. Bai ala ez?

N: Hori bai.

M: Ederra den batek, berriz, ez du inoiz arazorik izaten. Berdin dio oso bizkorra ez bada ere, beti izango ditu lagunak, eta

zer esanik ez bere bikotekide izan nahi dutenak. Baita oso jatorra izan gabe ere. Hori ere hala dela onartu beharko didazu...

N: Onartzen dizut.

M: Bikotekidea hautatzerakoan, pertsona eder samarra nahi izaten dugu denok aukeran. Ez dut esan nahi hori bakarrik baloratzen dugunik. Aintzat hartzen dugu izaera, gustuak, bien arteko kimika eta hori dena. Baina ahal bada, polita izan dadila.

N: Asko dira bikotekide polita ez dutenak eta pozik bizi direnak.

M: Dudarik gabe. Aukeran dauzkagunen artean hartzen dugulako, edo hartzen gaituztelako. Baina benetan ederra den batek, zenbatetan aukeratzen du pertsona itsusi bat bikotetzat?

N: Izango dira kasuak.

M: Izango dira, bai, denetik dago munduan. Eta gero azken arrazoi bat dago, edertasuna nahiago izateko. Esango dizut?

N: Ezetz esanez gero isilduko al zara?

M: Ez noski.

N: Orduan esan.

M: Lehen ikusi dugu oso bizkorra ez denak ez duela bere egoera hori bereziki sufritzen, ez duela gabezia larritzat hartzen. Polita baldin bada, are eta gutxiago. Horraino ados, ezta?

N: Ados.

M: Orain imajinatu alderantzizko kasua: pertsona bat oso bizkorra eta oso itsusia. Ohartzen da bere egoeraz? Dudarik gabe. Sufritzen du? Dudarik gabe hori ere.

N: Baina baditu beste dohain batzuk, konpentsatzeko.

M: Zuk uste beste dohain horiek kontsolatu egingo dutela bere itsustasunagatik?

N: Hori litzateke normalena, ezta?

M: Ba nik uste juxtu alderantziz dela. Begira: pertsona bat itsusia baldin bada, normalean, sufritu egiten du bere itsusta-

sun horregatik eta itsustasunak dakarkion bazterketa etengabearengatik. Itsusia izateaz gain azkarra baldin bada, sufrimendu hori, apaldu beharrean, areagotu egingo da.

N: Areagotu?

M: Areagotu, bai. Zeren, bere argitasunari esker, are eta garbia-go ikusiko baitu zenbat mespretxu eta ezikusi dakarkion bere itxura zatarrak; zenbat mugatzen duen bere harremantetan eta arrakasta sozialean. Buruz asko balio du, baina ohartzen da buruak deus gutxi balio duela gizartean, buru gutxiago eta gorputz gehiago dutenentzat dena dela errazagoa.

N: Esajeratzen ari zara.

M: Pixka-pixka bat bakarrik. Baina funtsean halaxe dela uste dut. Eta esango nuke zuk ere ez duzula diferente pentsatzen.

N: Aizu, nik zer pentsatzen dudan erabaki behar al duzu zuk?

M: Ez, baina errealitatea da zu ere hemen zaudela, ni bezala, hauek denak bezala, eta ez biblioteka batean.

N: Horrek ez du ezer esan nahi.

M: Beharbada ez du ezer esan nahi, baina datu bat da: konparatu, haurrak eta zaharrak kenduta, zenbat jende egongo den orain liburutegietan, eta zenbat hau bezalako tokietan. Begi-bistakoa da ondorioa.

N: Begi-bistakoa da zuk izugarritzko buru azkarra duzula nahi duzun ondoriora iristeko.

M: Zurea bezalako gorputza izango banu, igual ez nuke denbora holako txorakerietan emango.

N: Hori bai dela txorakeria. Zer egiten dut ba nik zuk egin ez dezakezunik?

M: Beti bestearena iruditzen baitzaigu interesgarriagoa.

N: Giza patua izango da hori. Azkar nahiz ergelena, zatar nahiz ederrena.

M: Baliteke. Baina ez da berdin.

N: Ez, ez da berdin.

IV
H GIZONEZKOA, I EMAKUMEZKOA

H: Ba, ez du ematen inork entzuten duenik.

I: ...

H: Berrero joko dut, badaezpada.

I: ...

H: Alferrik.

I: ...

H: Hemen gelditu beharko dugu.

I: Pfff.

H: Zer uste duzu, ni desiratzen nagoela ala?

I: ...

H: Zuri besterik bururatzen bazaizu...

I: ...

H: Hemendik ateratzeko, esan nahi dut.

I: Ez. Egia esan, ez.

H: Bueno. Hortaz, hobe gauzak patxadaz hartzea.

I: ...

H: Noski, erraz esaten da, gauzak patxadaz hartzea, baina halako egoera batean...

I: ...

H: Pasatu duenak besterik ez daki.

I: ...

H: Zuri gertatu al zaizu inoiz halakorik?

I: Mmm.

H: Niri ez. Bueno, txikitan, behin, etxean itxita utzi ninduten, nahi gabe, eta hantxe egon nintzen gurasoak itzuli arte.

I: ...

H: Baina ez da gauza bera, noski...

I: ...

H: Ez, ez da gauza bera.

I: ...

H: Honek ematen duen amorrazioa...

I: Isilduko al zara behingoz?

H: Bueno, bueno, hola jarri beharrik ez daukazu.

I: Nahi dudan bezala jarriko naiz ni.

H: Komentario bat egiten ari nintzen...

I: Kaka esplikatzen bai zu.

H: ... Denbora pasatzen laguntzeko.

I: Bestela ere pasako da denbora.

H: Hori ere egia da.

(...)

H: Aizu...

I: ...

H: Aizu.

I: Zer?

H: Bada, zera... nola hemen egon beharko dugun... ez dakit oraindik zenbat denbora baina... biok ere hemen, eta nola denbora nola-hala eman beharko dugun, bada, ez dakit, izena esango bazenit edo...

I: Zer inporta zaizu zuri nire izena?

H: Jakitea besterik gabe. Nirea...

I: Niri ez zait batere inporta zure izena.

H: Hizketan jarduteagatik edo.

I: Nik ez daukat hizketarako batere gogorik.

H: Ulertzen dut zure jarrera, e.

I: ...

H: Ez pentsa ulertzen ez dudarik. Hemen itxita, bat-batean, inora abisatu ezinik, ezezagun batekin. Ze gogo izango du batek berriketarako? Batere ez. Ulertzen dut.

I: ...

H: Bizitzaren gorabeherak hemen elkartu gaituztela-eta, hori ez da aski arrazoi adiskidetasun berriak egiten hasteko, besterik gabe. Ulertzen dut hori ere, ez pentsa ulertzen ez dudarik.

I: ...

H: Baina nik uste... Pentsatu dut... Iguar oker nago baina, nik esango nuke, bada, berbetan hasiz gero, azkarrago pasatuko litzatekeela hemendik atera arteko denbora, eta gusturago ere bai eta...

I: Ez duzu isiltzeko intentziorik, ezta?

H: Ez da intentzio kontua. Nik uste... Ez gaizki hartu, e? Nik uste...

I: Hitz eta pitz segituko duzu nik batere kasurik egiten ez badut ere, ezta?

H: Bueno, nik uste kasu egiten didazula. Beharbada ez duzu hitz askorik egingo, baina entzun behintzat egiten duzula esango nuke.

I: Beharko entzun. Nahi ezta ere.

H: Gauza ederra da komunikazioa, e?

I: ...

H: Batak pentsatzen duena besteari adierazi, iritziak trukatu, jakintza banatu, horrek egiten du gizakia berezi beste animalia guztien artean. Ez duzu uste?

I: ...

H: Ni beti izan naiz oso pertsona irekia, hiztuna, lagunekin solasean aritzea maite duena, ez dakit konturatu zaren.

I: Ez, ez...

H: Txantxetan ari zara noski. Ez dizut gaizki hartuko. Hala ere, bada gauza bat oraindik egin ez dudana, eta noizbait egin nahiko nukeena...

I: ...

H: Ez duzu jakin-minik, zer den jakiteko?

I: Ezetz esaten badizut isilik geldituko al zara?

H: Gustatzen zait zure umorea, benetan esaten dizut. Bada, noizbait egin nahiko nukeen hori da liburu bat idaztea...

I: ...

H: Ez al duzu ezer esan behar?

I: Zer nahi duzu ba esatea?

H: Ez dakit ba. Zuri ere pasatu zaizula noizbait burutik, edo liburuen kontu hori estralurtarrak bezain arrotza iruditzen zaizula, edo...

I: ...

H: Ba, niri ere urrutikoa egiten zitzaidan lehen, baina gero, gauzak leituz eta... Idazleren bat ere ezagutu nuen behin batean, eta aizu, ez duzu sinistuko baina pertsona normal-normala zen, zu eta ni bezalakoa.

I: Etzazula esan.

H: Bai, bai, benetan esaten dizut. Eta horrek pentsarazi zidan, ba... Aizu, zuk familiarik ba al duzu?

I: ...

H: Seme-alabarik esan nahi dut.

I: ...

H: Nahi ez baduzu ez esan. Nik bai. Hiru gainera. Ez dakizu ze politak. Eta xalauak? Bueno! Erakutsiko dizut erretratu... A, ez. Hemen gainean ez daukat. Kotxean izaten dut-eta. Bueno, berdin dio. Erakutsiko dizut beste batean. Edo ezagutuko dituzu igual, egunen batean. Bada, behin batean, nire lagun batek, Jose Inazio, jatorra mutila, ba, Jose Inaziok esan zidan mendira zihoala, arbola aldatzera. "Arbola aldatzera?" galdetu nion. Ta, "Nahi al duk etorri?" esan zidan berak. Ta, "Bai horixe", esan nion nik. Sekula arbolarik

aldatu gabea bainintzen. Oso esperientzia polita, aizu. Aberragarria. Nola esango nizuke? Planetarekin bat eginarazten dizuna. Etzazu barrerik egin, hala da eta. Lur pusketa bat zarela sentiarazten dizu, zu ere lurraren parte zarela. Eta orduan pentsatu nuen... Jakin nahi duzu zer pentsatu nuen orduan? Pentsatu nuen: "Seme-alabak bazeuzkaat, arbola aldatu diat; zer falta zaidak? Liburua idaztea".

I: ...

H: Zer iruditzen? E, zer iruditu zaizu?

I: Hunkigarria.

H: Bai, badakit zer ari zaren pentsatzen. Txorakeria galanta dela. Eslogan bat da azken batean, baina badu bere logika ere: alde batetik zure ondoren genetikoa ziurtatzen duzu; bestetik, munduaren jarraipen biologikoari laguntzen diozu; eta azkenik, ideien mailan ere ekarpen bat uzten duzu, ondorengo belaunaldientzat edo.

I: Eta norbait hil?

H: Zer?

I: Zure plan eder hori biribiltzeko, azken osagai bat falta zaizu: norbait hiltzea.

H: Txantxetan ari zara.

I: Ezta batere.

H: Nondik atera duzu hori?

I: Nire teoria bat da.

H: Kontxo.

I: Interesatzen zaizu?

H: B-bai. Bai noski. Asko.

I: Halere. Pentsatzen hasita nengoen bere buruari entzunez txoratzen diren horietakoa ote zinen.

H: Ez, ez.

I: Halere.

H: Norbait hiltzea hortaz, e?

- I: Ez al duzu inoiz pentsatu egundoko esperientzia izan behar duela norbait zeure eskuz hiltzea?
- H: Ba, ez. Egia esan ez zait inoiz burutik pasa.
- I: Baina noizbait pentsatuko zenuen, putasemereren bat ezagutu eta, “hobe lurpean balego”.
- H: Bai, hori bai, noizbait.
- I: Baina ez zeure eskuz.
- H: Ez, ez. Hori ez.
- I: Estatuaren morroiak bihurtu garelako. Hari obeditzen diogu, txintxo-txintxo egiten ditugu agintarien esanak, nahiz eta iraultzaileak garela esan edo geure baitan sistemaren kontrakoak sentitu. Norbaitek kalte egiten badizu... norbaitek zure hiru ume zoragarri horietako bat bahituko balizu, zer egingo zenuke?
- H: Ba, poliziarri deitu...
- I: Ikusten? Estatuaren esku utzi dugu justizia egiteko ahala. Hark bakarrik dauka mendekurako eskubidea. Zure seme-alabetako bat bortxatuko balute, ez al zenuke erruduna zeure eskuz akabatuko, gustura gainera?
- H: Ba, kasu horretan bai. Jo ta larrutu egingo nuke! Txiki-txiki egingo nuke! Hartu eta...
- I: Ikusten? Bortxaren monopolioa Estatuari ematen diogu, baina gure parte bat da, hori ere bada gizakiaren ezaugarria. Eraikitzea bezala, suntsitzea.
- H: Ba, alde horretatik begiratuta, arrazoia duzu. Hala ere, bizi-modu normalean...
- I: Eman dezagun... mundu hipotetiko bat asmatuko dut. Ez dagoen gizarte bat. Eman dezagun, gizarte horretan, arauak egin direnean, hiltzea ez dagoela guztiz debekatuta.
- H: Kaos bat izango litzateke. Indartsuenaren legea.
- I: Orain ere ez du indartsuenak bere legea inposatzen?
- H: Muga batzuk daude. Nolabaiteko demokrazia...
- I: Ez dut politikaz hitz egin nahi. Berdintsu dio, dena dela. Hiltzea ez guztiz debekatua esan dut. Baina ezta guztiz libre

ere. Pertsona bakoitzak eskubidea izango luke, bere bizialdi osoan, beste pertsona bat, bat bakarra, hiltzeko.

H: Zigorrik gabe?

I: Inongo zigorrik gabe.

H: Berak nahi duena hiltzeko.

I: Gogoak ematen diona.

H: Eta arrazoi jakinen batekin, edo...?

I: Norberak jakingo luke zein den benetako arrazoia, baina ez luke azalpenik eman beharko.

H: Orduan edonork hil zaitzake zu ere.

I: Jakina. Etsai handiren bat baldin badaukazu, bietako bat: edo zuk hiltzen duzu, edo berak hilko zaituen beldurrez bi-zi beharko duzu.

H: Hori infernu bat izango litzateke, denak denen beldurrez.

I: Ez pentsa. Baditu bere alde onak ere.

H: Alde onak? Zein?

I: Jendea oso kontuz ibiliko litzateke inori alukeria handiren bat egin aurretik. Ze, zuk inor izorratzen baduzu, gero hark zu hilko zaitu akaso.

H: Baina bizkartzainak baldin badauzkazu...

I: Eman dezagun ez dagoela halakorik. Debekaturik daude. Denok ibili behar dugu kalean gure gorputza agirian.

H: Edonork hiltzeko gertu.

I: Baina inori zu hiltzeko arrazoirik ematen ez badiozu, zergatik hilko zaitu?

H: Ez dakit ba nik. Nola libre den, ez da behar arrazoirik.

I: Bai: baina pertsona bakarra hil dezakezu zure bizitza osoan. Hortik aurrera guztiz debekatuta eta zigortuta egongo litzateke.

H: Eta norbait hiltzea, bat bakarra izanda ere, beharrezkoa izango litzateke?

I: Ez: aukera bat da bakarrik.

H: Hortaz, posible da zuk bizitza osoan inor ez hiltzea, ezta?

I: Noski, baina beti edukiko zenuke aukera hori. Erabiliko ez bazenu ere.

H: Bueno, horrek badu bere zera.

I: Gainera, zure hiltzeko eskubidea gaztetan erabiltzen baduzu, aurrerantzean botere handi hori gabe gelditzen zara. Aldiz, gaitasun hori erabiltzen ez duzun bitartean, zeure ahalmenen artean segituko luke, denek jakingo lukete, eta halako errespetu bat izango lukete, badaezpada ere.

H: Ez dago gaizki pentsatua.

I: Gustatu egin zaizu, e?

H: Gustatu ere ez baina, hori ere aukera bat da.

I: Aukera bat ere ez, aizu. Hipotesi bat, asko jota.

H: A, bai, egia. Badakizu, ni berehala berotzen naiz eta.

I: Zer ari zinen: nor garbitu pentsatzen ala?

H: Ez, ez, ez. Zuk esandakoaz pentsatzen bakarrik.

I: ...

H: Aizu, zuk asko pentsatzen duzu, e?

I: Denbora pasatzen laguntzen du.

H: Ez zara ba idazlea izango?

I: Ni? Idazlea?

H: Irudimen handia daukazu eta.

I: Eskerrik asko.

H: Nahiko nuke nik, halako irudimena banu.

I: ...

H: Seguru honezkero liburua asmatu nuela.

I: ...

H: Zuk uste duzu noizbait liburua idatzi ahal izango dudala?

I: Proba egin ezazu.

H: Zure irudimena banu...

I: ...

H: Hemen ez da inor azaltzen hau konpontzera, e?

I: ...

LAU DILEMA

H: Berriz joko dut?

I: ...

H: Berriz joko dut, ea norbaitek entzuten duen.

I: ...

H: Alferrik.

I: ...

H: Hemen geratu beharko dugu.

I: ...

H: Hobe izango da gauzak patxadaz hartzea, ezta?

I: ...

Xabier Mendiguren Elizegi